



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko azaroaren 15a

98. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa, toki kontratazioari dagokionez. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Castejóngo Museorako laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, San Adriángo eliza zaharraren zaharbertitzean eta leheneratzean Kultura Departamentuak izanen duen parte-hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Europak etorkizunean eraman behar duen erregioei buruzko politika berriaren proposamenak prestatzean Gobernuak izan duen parte-hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Zangozako Mankomunitatearen zaborteziaren erabilerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Madrilgo LIBER Liburu Azokan parte hartu duen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, eremu mistoari buruzko azterlan soziolinguistikoa Legebiltzarrera igorri ez izanaren arrazoiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Itoizko urtegiko presa dela-eta, larrialdietarako eta ebakuaziorako balizko planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Konstituzio Auzitegiaren epai bidez konstituziokontrotzat deklaratu den soldaten igoeraren ondorioz funtzionarioek jasotako dirua itzuli beharko ez dutela esaten duten txosten juridikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Bidesariaren teleordainketa sistemak sustatzeko asmoari buruz, ibilgailuek ez dezaten AP-15eko bidesari-postuetan geratu behar. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

- Galdera, ehiza-espezieak harrapatzeak eragindako zirkulazio istripuen kasuetarako erantzukizun sistema bat ezartzen duen Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko Foru Legearen 86. artikuluan oinarrituta izapidetu diren espedientei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna ([27. or.](#)).
- Galdera, euskarazko hezkuntza eskaintza publikoa bermatzeko beharrezkoa izanen litzatekeen aurrekontu-handitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna ([28. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa, toki kontratazioari dagokionez.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea toki kontratazioari dagokionez aldatzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezen agindu dut. Proiektu hori 2006ko urriaren 6ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

1. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa

163. artikulua.

Proiektuko testuaren ordez honako hau proposatzen da:

Sektoreko berariazko legedian ezartzen diren manu tekniko eta fakultatiboei jarraikiz eginen dira herri-mendien administrazioa, antolamendua eta aprobetxamendua, eta beharrezkoa izanen dute foru komunitateko administrazioak alde aurretik baimena ematea.

Zioak: Manuak ez du soilik aprobetxamendua hartuko bere baitan, administrazioa eta antolamendua ere hartuko baititu, eta mantendu egiten da foru komunitateko administrazioaren baimena eduki beharra; izan ere, ez da mendiaren araubide juridikoaz ari, herri-mendia den aldetik toki-zuzenbideari baitagokio, ezpada oihan- eta ekologia-

zientziaren ikuspuntutik mendiari ematen zaion tratamenduaz eta horiek duten garrantziaz bizitza kalitatea, fauna eta flora babesteko, hidrologiazikloa erregulatzeko eta paisaiaren balio estetiko eta aisialdikoak gordetzeko; eskumen hori, finean, ez da toki entitateekin partekatzen.

2. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluari lerrokada bat gehitzeko zuzenketa.

164. artikuluari lerrokada bat gehitzea proposatzen da.

Hau da proposatzen den testua:

Foru komunitateko administrazioa arduratuko da zuhaitzia markatu, eman eta aztertzeaz.

Zioak: Hori iruditzen zaigu logikoena.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa

164. artikulua.

Azken lerrokada bat, bigarrena alegia, gehitzea proposatzen dugu, 6/1990 Foru Legeak ezarritakoa berreskuratzeko. Horra: Foru komunitateko administrazioa arduratuko da zuhaitzia markatu, eman eta aztertzeaz.

Zioak: Erabat logikoa da oihaneko zerbitzu teknikoek esku hartzea; izan ere, toki entitateek ez dute, oro har, arlo horretako prestakuntza duen langilerik, eta ezin dugu ahortzi eskumen hori foru

komunitateko administrazioari dagokiola, hark baitu mendien gaineko eskumena, mendiak jabetza publikokoak edo pribatukoak izan.

4. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

166. artikuluko 3. idatz-zatia honela geldituko da idatzirik:

3. Ez baldin bada aurreko idatz-zatian xedatutakoa aplikatzen edo azkeneko enkantea izan ondoren hutsik gelditzen bada eta toki entitateak haren balio ekonomikoari buruzko txostena eskatzen badio oihan administrazioari. Kasu horretan, toki entitateak foru lege honetako 170. artikuluan xedatutakoari jarraikiz besterendu ahalko ditu zur eta egurretako aprobetxamenduak.

Zioak: Kontratatzeke malgutasun handiagoa ematea toki entitateei enkante publikoa hutsik gelditu eta oihan administrazioari balio ekonomikoari buruzko txostena eskatzen zaion kasuetarako.

5. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

167. artikulua, 2. idatz-zatia:

Artikuluaren testua honela geldituko litzateke:

2. Toki entitateen zur eta egurretako aprobetxamenduak lote bakarrean bildu ahal izanen dira, besterentzeko. Horretarako, eta zur eta egurretako produktuak saltzearen ondorioetarako, salmentazentralak erabili ahal izanen dira, kontratu publikoari buruzko foru legeriak eta foru lege honek salmenta-zentraletarako xedatutakoari jarraikiz.

Nafarroako Gobernuak salmenta-zentralen eta toki entitateen arteko funtzionamendu koordinatua arautu eta, erregelamendu bidez, garatuko du.”

Zioak: Nafarroako Gobernua konprometitzea salmenta-zentralak antolatu eta horien plangintza egin dezan.

6. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

169. artikulua, 1. idatz-zatia:

1. idatz-zatia honela geldituko litzateke:

1. Toki entitateek esparru-akordioak egin ahal izanen dituzte enpresa batekin edo gehiagorekin zur eta egurretako produktuen aprobetxamenduen ondorioetarako. Esparru-akordioetan gutxienez honako hauek zehaztu beharko dira: indarraldia, baldintza tekniko eta administratibo orokorrak, ezaugarri bolometrikoak eta aprobetxamenduen produktu-motak eta prezioak.

Kontratuei buruzko araudian ezarritakoa baino luzeagoa izan ahalko da indarraldia, oihan administrazioak alde zuzenetik baimena eman gero.

Zioak: Esparru-akordioek indarraldia luzatzeko aukera ematea, kontratuei buruzko legean ezarritzen den lau urteko epea ez baita egokia oihan arloan.

7. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan letra bat gehitzeko zuzenketa.

170. artikuluko 1. idatz-zatiari d) letra bat gehitzen zaio:

Hau da proposatzen den testua:

d) Foru lege honetako 166.3 artikuluan ezarritakoetan.

Zioak: Kontratatzeke malgutasun handiagoa ematea toki entitateei enkante publikoa hutsik gelditu eta oihan administrazioari balio ekonomikoari buruzko txostena eskatzen zaion kasuetarako.

8. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa

170.2 artikulua.

Kontzeptuak gehitzea proposatzen da; hartara, honela geldituko litzateke:

“.. txostena egin beharko du alde zuzenetik eta loteslea izanen da, erregelamendu bidez ezartzen diren epe eta prozedurari jarraikiz.

Zioak: Salbuespena izaki, alde zuzenetik egin beharrekota da inondik ere, modu objektiboan ezarritako epe eta prozedurei jarraikiz.

2. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

9. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa.

Proiektuko 2. artikuluari 2. eta 3. idatz-zatiak gehituko zaizkio, eta hartara, artikulua 1. idatz-zati bihurtuko da. Hona testua:

“2. Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 192. artikuluko 3. idatz-zatiak testu berria du. Hona:

«3. Zeharkako kudeaketa modu honetara egin ahalko da:

- a) Zerbitzuen emakida edo laguntza kontratua.
- b) Kudeaketa interesatua.
- c) Errentamendura.

d) Merkataritza sozietatea edo kooperatiba, zeinaren kapitala hein batean baizik ez baita izan toki entitatearena.

e) Kontratu publikoei buruzko foru legedian ezarritako gainerako moduetara.

3. Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 203. artikulua kendu da.

Zioak: Kontratu publikoei buruzko foru legera egokitzea, eta bereziki, itunaren figura ezabatzea, zerbitzu publikoak kudeatzeko emakidaz eta laguntza kontratuaz bestelako kudeaketa modu izatetik, foru lege horrekiko koherenteagoa baita; izan ere, foru lege horretatik itunak desagertu dira, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratu mota bat baizik ez zirelako. Legearen zioen azalpenean esaten denez, “zerbitzuen emakidaren figura sartzeak zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua deituaren desagertzea dakar, horren xedea laguntza kontratuaren eta zerbitzuen emakidaren artean banatzen baita.” Hortaz, Europar Batasuneko araudiaren arabera, enpresaburu baten bidez kolektibitatearentzako zerbitzuak emateak bi forma baino ezin ditu hartu: alde batetik, laguntza kontratuaren forma, enpresaburuak bere ordainsaria entitate publikotik jasotzen duenean, egiten duen prestazioen arabera, eta bestetik, emakidaren forma, enpresaburuak bere ordainsariaren zati bat, gutxienez, erabiltzaileengandik jasotzen duenean, “itzaleko bidesaria” bezalako ordainketa motak barne direla.

3. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

10. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

224. artikuluko 3. idatz-zatiko a) letra aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

a) Luzapenak barne, epea ez da zortzi urtetik gorakoa izanen, hitzarmenetan izan ezik.

Zioak: Hamar urteko epea luzeegia da zerbitzuak esleitzeko, kontuan hartuta horiek aldatu egin daitezkeela eta aldatu egin behar dutela; emakidak, halatan, balazta eta arazo bihurtzen dira toki entitateen jardunari begira.

11. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

6/1990 Foru Legeko 224. artikuluko 3. idatz-zatiko a) letra, proiektuko 3. artikuluan idatzita dagoen gisa, honela geldituko da:

a) Luzapenak barne, epea ez da hamar urtetik gorakoa izanen.

Zioak: Hitzarmenak desagertzea proposatzen den zuzenketarekin bat.

12. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluan kenketa egiteko zuzenketa.

225. artikulua kentzea proposatzen da.

Zioak: Hautapen bidezko karguen bateraezintasuna ezin da mugatu ez biztanle kopuruari erreparatuta ez ordenantza edo osoko bilkuren alde bateko erabakien bidez. Higiene politikoa eta politikoen jardunbideko higiena, bai eta interes pribatuak ere, era guztietako herrietan gertatzen dira.

13. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluan kenketa egiteko zuzenketa.

225. artikulua testua honela geldituko litzateke:

225. Nafarroako toki entitateetan, 2.000 biztanle baino gutxiago badituzte, abstentziorako arrazoia izanen da hautapen bidezko karguen bateraezintasuna.

Zioak: Arlo honetan, bateraezintasunik baden edo ez den ezin da utzi ordenantza baten edo osoko bilkura baten esku, baldin eta legeak bateraezintasuna badela ezartzen badu.

14. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

226. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letra aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

1) Urteko kontratazioak, baldin eta zenbatekoak aurrekontuetako dirusarrera arrunten %5 gainditzen ez badu.

Zioak: Aurrekontuetako dirusarrera arrunten %10 gehiegizkoa da kasu asko eta askotan. Zenbait kasutan, beraz, lehendakariak neurritz kanpoko bolumeneko esleipenak egin litzake.

15. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluan kenketa egiteko zuzenketa.

227. artikuluko 1. idatz-zatiko bigarren lerrokada kentzea proposatzen da.

Artikuluaren testua honela geldituko litzateke:

227.1. Toki entitateek administrazio klausula orokorren orriak eta agindu tekniko orokorren orriak ezarri ahalko dituzte. Orri horiek onestea Osoko Bilkurari edo entitatearen organo gorenari dagokio.

Administrazio klausula partikularren orriek eta agindu tekniko partikularren orriek ezin izanen dute izan orri orokorretan ezartzen denaren aurka hizpaktarik.

Zioak: Arau-hierarkiaren printzipioaren aurka doa.

16. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

228. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

1) Emakida kontratuak adjudikatzeko Kontratazio Mahaia eratu beharko da nahitaez beti, bai eta obra kontratuen balio zenbatetsia 150.000 eurotik goitikoa bada (BEZa kanpo) eta hornidura eta laguntza kontratuen zenbatekoa 30.000 eurokoa edo gehiagokoa bada ere (BEZa kanpo).

Zioak: Toki entitateen ahalmen ekonomikoa eta kontratazio bolumena kasuan-kasuan hain ezberdina denez, gehiegizkoa zenbatekoa ezarri da bai Kontratazio Mahaia eratzeko bai Kontratazioaren Atarian iragarkia jartzeko bai...

17. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

6/1990 Foru Legeko 228. artikuluko 1. idatz-zatia, proiektuko 3. artikuluan idatzita dagoen gisa, honela geldituko da:

Gainerako kasuetan, administrazio klausulen orriak kontratazio mahai bat ezarri ahalko du.

Zioak: Argi uztea Kontratu publikoei buruzko Foru Legeak hori xedatzen duela, eta aplikatzera-koan arazorik ez izatea.

18. ZUZENKETA**ASKOTARIKO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

228. artikuluko 1. idatz-zatiko lehenengo lerrokada, lege honetako 3. artikuluan idatzita dagoen gisa, aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

228 artikulua. 2. Kontratazio mahaiaren buru korporaziokoa bera izanen da, edo korporazioko kideetatik hark eskuordetutakoa, eta mahaiko partaide izanen dira, gutxienez, kontratazio organoak izendatzen dituen bi kide; eta entitateko idazkaria edo zuzenbidean lizentziatua den funtzionario bat, betetzen ari den lanposturako titulazio hori exijitzen bada, eta hura arituko da idazkari.

Zioak: Gure ustez, beharrezkoa da Kontratazio Mahaia gutxienez ere bi kidek eta idazkariak osatzea, ebazten dituen kontratuen garrantzia kontuan hartuta.

19. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

229. artikuluko 8. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

8) Nafarroako (...) obra kontratuen kasuan, 150.000 euro (BEZa kanpo) gainditzen baditu, eta, hornidura eta laguntza kontratuen kasuan, 30.000 euro (BEZa kanpo) gainditzen baditu.

Zioak: Toki entitateen ahalmen ekonomikoa eta kontratazio bolumena kasuan-kasuan hain ezberdina denez, gehiegizko zenbatekoa ezarri da bai Kontratazio Mahaia eratzeko bai Kontratazioaren Atarian iragarkia jartzeko bai...

20. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

229. artikulua 8. idatz-zatia aldatu da.

Testua honela geldituko litzateke:

8. Nafarroako toki entitateek eta horiei lotutako entitateek nahitaez iragarri beharko dute Kontratazioaren Atarian –Nafarroako bi hizkuntzetan, gaztelaniaz eta euskaraz– prozedura negoziatu bat abian dela, baldin eta kontratuaren zenbatekoak, obra kontratuen kasuan, 300.000 euro (BEZa kanpo) gainditzen baditu, eta, hornidura eta laguntza kontratuen kasuan, 60.000 euro (BEZa kanpo) gainditzen baditu.

Zioak: Nafarroako herritarren hizkuntza eskubiak bermatzea.

21. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa

230.1 artikulua.

Ondokoa gehituko da: “kontratuak formalizatzea izanen baita arau orokorra,” eta beraz honela geldituko da:

Nafarroako toki entitateek eta haiei lotutako entitateek ondoko arauari jarraikiz formalizatuko dituzte kontratuak, kontratuak formalizatzea izanen baita arau orokorra:

Zioak: Errekurtsuak aurkezteko epeei buruzko arrazoi teknikoak eta gardentasun eta informaziorik buruzko arrazoi politikoak direla eta, ez da arazoizkoa kontratuak formalizatzeke irizpide orokorretik aldentzea; izan ere, formalizazioak, izenak berak dioten bezala, espediente bako bako argiago eta zehatzago islatzen ditu kontratazioa eta haren ezaugarriak, eta gaikuntzarekin ere nahas daiteke ahozko kontratazio orokorraren kasuan.

22. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

230. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

2. Administrazio klausula partikularren orriak (...) obra kontratuen kasuan, zenbatekoa 150.000 eurotik gorakoa (BEZa kanpo) bada, eta hornidura eta laguntza kontratuen kasuan, berriz, zenbatekoa 30.000 eurotik gorakoa (BEZa kanpo) bada, (...)

Zioak: Toki entitateen ahalmen ekonomikoa eta kontratazio bolumena kasuan-kasuan hain ezberdina denez, gehiegizko zenbatekoa ezarri da bai Kontratazio Mahaia eratzeko bai Kontratazioaren Atarian iragarkia jartzeko bai...

23. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

6/1990 Foru Legeko 232. artikuluko 1. idatz-zatia, proiektuko 3. artikuluan idatzita dagoen gisa, honela geldituko da, “autonomia funtzional osoko organoari zuzendua” aldatu ondoren: “(...) organoari –ebazteko eginkizunetan independentea eta jarraibide hierarkikoei lotuta ez dagoena– zuzendua”

Zioak: Zehaztasun tekniko handiagoa, Europako araudira eta Kontratu publikoei buruzko Foru

Legera egokituz testua. Autonomia funtzionala –administrazio organo askok dute– eta jarraibide hierarkikoei lotu gabe ebazteko independentzia izatea ez dira gauza bera.

XEDAPENEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

24. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Xedapen gehigarria. Toki entitateek BEZa berreskuratzeko eskaera egin ahalko dute, baldin eta esleipena kultura, kirol, laguntza eta gisako udal hornidurak eraikitzeke bada eta horien funtzionamendua eta kudeaketa zuzenean nahiz hiru-garren bati emanda egin badaiteke. BEZa zuzenean edo, kasua bada, dirulaguntza bidez berreskuratu ahalko da.

Zioak: Udal hornidurei bideratutako eraikuntza obretan ordaindutako BEZa berreskuratzeko bide bakarra baldin bada horien kudeaketa eta erabileraren prezioaren kobrantza kudeaketa pribatuaren bitartez egin behar izatea, toki entitateak zerbitzuak pribatizatzerara behartzen ari gara. Erabaki hori zeharo bidegabea da toki entitateentzat.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Castejóngo Museorako laguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak galdera egin du Castejóngo Museorako laguntzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko irailaren 8ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du Castejóngo Museoarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Jorge Oteiza Museoa Fundazioa kenduta, Nafarroako aurrekontu orokorretan bi kontusail izendun dituelako (gastu arrunta eta inbertsioa) eta urtero hitzarmenak sinatzen dituelako, museoek eta museo-erakusketa iraunkorrek jasotzen dituzten dirulaguntzak urtero deialdi publiko baten bidez ematen dira; dirulaguntza horien barruan aurreikusten dira funtzionamendu gastuak, sustapen eta zabalkunderako jarduerak eta beste inbertsio mota batzuk. Dirulaguntza horietarako Nafarroan irekita dauden museo eta erakusketa iraunkorretako titularrak lehiatzen dira.

2006ko ekitaldiari dagozkion laguntza-deialdiak Kultura eta Turismo kontseilariak baimendu zituen martxoaren 29ko 71/2006 Foru Aginduaren bidez -apirilaren 28ko 51. NAO-n argitaratua-, eta eskabidea aurkezteko epea 2006ko maiatzaren 29an bukatu zen. Dirulaguntzak 2006ko abuztuaren 28ko 253, 254 eta 252 foru aginduen bidez ebatzi ziren.

Beraz, 2006ko laguntza horiek emateko aurrekontuan dagoen diru kopurua honela banatzen da:

– Funtzionamendu gastuetarako laguntzak, osotara, 133.000 euro.

– Jardueretarako laguntzak, osotara, 45.200 euro.

– Inbertsioetarako laguntzak, osotara, 380.000 euro.

2003. urtetik, aurrekontuetan laguntza horietarako erabili den diru kopurua etengabe handitu da, ondoko taulan ikus daitekeenez:

Kapitulua	2003	2004	2005	2006
4	129.885 €	241.038 €	178.180 €	178.200 €
7	-----	-----	130.200 €	380.000 €
Guztira	129.885 €	241.038 €	308.380 €	558.200 €

Dirulaguntza horiek dira Castejóngo museoa inauguratzean aipatu zirenak. Herri horretako udala, museoaren jabe den aldetik, aipatu dirulaguntzak lortzeko lehia daiteke, deialdi publikoa egindakoan.

Bestalde, aipatu behar da Kultura eta Turismo Departamentuko Arkeologia Zerbitzuko teknikariek laguntza eta aholkularitza teknikoa eman dutela museoan erakusgai dagoen bilduma biltzeko eta diseinatzeko prozesuan; horretaz gain, aipatu ere aipatu behar da Nafarroako Gobernuak, informazioa emateaz gain, hautatu eta laga duela museoan gaur egun erakusten den fondo arkeologikoa.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urriaren 2an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, San Adriángo eliza zaharraren zaharberritzean eta leheneratzean Kultura Departamentuak izanen duen parte-hartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak galdera egin du San Adriángo eliza zaharraren zaharberritzean eta leheneratzean Kultura Departamentuak izanen duen parte-hartzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko irailaren 8ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Adriángo eliza zaharrarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Kultura eta Turismo Departamentuak, Ondare Historikoaren Zerbitzuaren bidez, Nafarroako ondare arkeologikoa eta higigarria zaintzeko laguntza-deialdiak egiten ditu urtero; deialdi hori zuzentzen zaie babes eta zaintza bermatze alde-
ra jarduketaren bat behar duten ondasunen jabe-
ei.

Galderan aipatzen den San Adriángo eliza zaharrari dagokionez, esan behar da Nafarroako Gobernuak Ondare Historikoaren Zerbitzuak ez duela eliza horren jabeen aldetik inolako eskaerarik jaso; hala ere, aurreikusita dago zerbitzuko teknikarien bisita eliza horren gaur egungo egoera azter dezaten.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urriaren 2an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Europak etorkizunean eraman behar duen erregioei buruzko politika berriaren proposamenak prestatzean Gobernuak izan duen parte-hartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Europak etorkizunean eraman behar duen erregioei buruzko politika berriaren proposamenak prestatzean Gobernuak izan duen parte-hartzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko irailaren 8ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Europak etorkizunean eraman behar duen erregioei buruzko politika berriaren proposamenak prestatzean Gobernuak izan duen parte-hartzeari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Lehen galderari:

2006ko 12 eta 13an, Bruselako Charlemagne eraikinean "Erregioak aldaketa ekonomikoaren alde, berrikuntza Europar Batasuneko erregioei buruzko politikaren bidez" izeneko hitzaldia egin

zen, eta bertara, Europako Aferen eta Plangintza-ren Zuzendaritza Nagusiari atxikitako Kanpo Ekin-tzako Zerbitzuko zuzendaria joan zen.

Hitzaldia izan zen teknologiaren transferentzia sustatzea, berrikuntza eta klusterrak bezalako praktika onak ebaluatzeari buruz; arreta berezia jarri zen gutxi garatutako eskualdeetan arrakasta izan duten estrategia eta proiektuetan. Hiru gai nagusiak honakoak izan ziren:

- Nola sortu berrikuntzarako giro egokia.
- Nola indartu kapital publiko eta pribatuaren aldeko lankidetzak.
- Nola ezarri lankidetzak eta sinergiak.

Esperientzien trukaketa praktikan areagotzeko, hiru lan-talde antolatu ziren, eta bakoitzean agintari publikoak, adituak eta profesionalak bildu ziren. Lan-taldeetan aztertu beharreko gaiak honakoak izan ziren: agintari publikoen zeregina klusterren berrikuntza eta elikaduraren kudeaketan; berrikuntzarako azpiegituraren eta euskarri zerbitzuen garapena; finantza ingeniariak; polo garrantzitsuen garapena; ikerkuntzaren emaitzak merkaturatzea; ezagutzaren zabaltzean sareek jokatzeko duten papera; erregioen arteko proiektuen garapena; eta nazioko eta Europako batasuneko finantzaketak konbinatzeko esperientzia.

Eskatutako informazio guztia eskuragarri dago ondoko helbidean:

http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/innovating_june06/programme_en.cfm

Bigarren galderari:

Hitzaldiaren edukiarengatik –hiriei buruzko gaiak, alegia– Iruñeko Udalak ordezkatu zuen Nafarroa.

Hirugarren galderari:

Sortu gabe dauden erreformarako programa nazionalaren eta erreferentzia-marko nazionalaren arloetan –horien prestaketa Gobernuko Lehendakariaren eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren ardura da, eta Europar Batasunak jarritako epeak gainditu dira– Nafarroako Foru Administrazioak, egitura-funtzen araudi berriaren arabera berari dagozkion programa operatiboak prestatuko ditu 2007-2013 eperako, betiere, Europako Batzordeak emandako jarraibideen arabera eta emandako epeak betez (2006ko abenduaren 31n bukatuko da epea).

Laugarren galderari:

Nafarroako Foru Komunitateak harremana du Europako Batzordeko “DG Regio”rekin Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Europako Batasuneko funtserako Zuzendaritza Nagusiaren bidez; Horren aurrean aurkeztuko ditu 2007-2013 eperako programa operatiboak; programa horien ardatz eta neurrietan, Nafarroari, lehiakortasuna eta enplegua helburu dituen erregioa izateagatik, dagozkion Europako Batasuneko funtzen bidez kofinantzatutako politikak sartuko dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko irailaren 26an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, Zangozako Mankomunitatearen zaborteziaren erabilerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak galdera egin du Zangozako Mankomunitatearen zaborteziaren erabilerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentu-

ko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko irailaren 29ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra, parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak hainbat galdera egin ditu Zangozako Mankomunitateko zabortegearen egoerari buruz eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Noiz arte pentsatu du Nafarroako Gobernuak duela urtebete baino gehiagotik gainezka dagoen zabortegea erabiltzea?

Nafarroako Gobernuak ez du zabortegea erabiltzen. Mankomunitateak erabiltzen du zabortegea berak baitu hiri hondakinak kudeatzeko eskumena.

Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeko 4. artikuluko 3. idatz-zatian ezarrita dago udalerriek bete beharreko zerbitzua dela hiri hondakinak bildu, garraiatu eta, gutxienez, deuseztatzea kasuan kasuko ordenantzak ezarritako moduan.

Noiz arte pentsatu dute eustea Zangozako eskualdeko herritarrentzat horren kaltegarria den egoera horri?

Zangozako Mankomunitateari eskatu zaio lehenbailehen zabortegea itxi dezan.

Zer egiteko asmoa dute zabor horrekin? Nora eramateko asmoa dute?

Indarra duen Nafarroako hondakinak kudeatzeko plan integratuan aurreikusita dago hiri hondakin

solidoak tratatzeko hiru planta egitea, Iruñean, Cárcarren eta Tuteran; Zangozako Mankomunitateak, beste zabortege bat irekitzea erabakitzen ez den bitartean, planta horietakoren batekin ados dezake zabortegea tratatzeko ematea.

Zer egiten ari da Ingurumen Departamentua Zangozako Mankomunitateko lixibiatuekin?

Gaur egun zabortegeiak sor ditzakeen lixibiatuen tratamendua Mankomunitatearen ardura da.

Departamentuaren ardura bakarra da araudia betetzen den kontrolatzea, eta ez bada betetzen isuna jartzea; zentzu horretan, aipatu behar da zabortegea ikuskatu zela 2005eko abuztuaren 4an, zabortegearen egoera zein den eta indarreko legedian ezarritakoari jarraitzen zaion aztertze; ikusketa horren ondorioz, 2005eko azaroaren 17an, hainbat neurri hartzeko eskatu zen idazki baten bidez, besteak beste, zabortegean sortutako lixibiatu guztia biltzeko beharrezko diren lanak egitea; hiru hileko epea eman zen neurri horiek betetzeko.

Azkenik, adierazi behar da 2006ko urriaren hasieran mankomunitateari eskatu zaiola zabortegea lehenbailehen ixteko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urriaren 5ean

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, Nafarroako Gobernuak Madrilgo LIBER Liburu Azokan parte hartu duen jakiteko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Madrilgo LIBER Liburu Azokan parte hartu duen jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 6ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Nazioarteko Liburu Azokan parte-hartzeari buruz. Hona hemen Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eledunaren erantzuna:

2006ko irailaren 27, 28 eta 29an, "Liber" izeneko Nazioarteko Liburu Azoka egin zen, "Feria de Madrid" elkarteak antolatuz eta "Federación de Gremios de Editores de España"k sustaturik; azoka sektore horretako profesionali zuzenduta dago. Azokaren helburua ez da salmenta, baizik eta erakusketa izatea; aurren, Kolonbia izan da herrialde gonbidatua.

Nafarroako Gobernuak, urtero bezala, 2006ko Líber azokan parte hartu zuen Komunikazio Zuzendaritza Nagusia-Gobernuko Eledunaren Bulegoaren menpe dagoen Protokolo eta Argitalpen Zerbitzuaren bidez. Azokan egoteko egindako inbertsioa 6.000 eurokoa izan zen.

Nafarroak parte hartu zuen erakustoki bat (5. pabilioia: 5A119) antolatzen, ondoko ezaugarriekin: 25 metro koadroko azalera eta metro bateko zabalera zuten launa apaleko 8 apalategi. Ordutegia izan zen 9:30etik 20:30era, 27an, 28an eta 29an, eta 19:00etatik 21:00etara inaugurazio egunean –irailaren 26an–.

Osozara Nafarroako Gobernuaren 110 argitalpen erakutsi ziren, arlo bakoitzeko –arte, hezkun-

tza, geografia, literatura, zuzenbidea, eta abar– adierazgarrienak, eta aldizkako argitalpenen ale bana. Azpimarratzeko da hezkuntzari eta arteari buruzko argitalpenek eta turismoari buruzkoek –geografia eta atlasak– sortutako interesa, batez ere, "2006ko Nafarroako Ostatuen Gidak."

Nabarmendu behar da bisitarien ehuneko handi bat profesionalak (argitaratzaileak, arte grafikoa, inprimatzaileak eta abar) izan zirela; izan ere, azoka arlo horretako profesionali zuzenduta dago. Bisita horien helburua da, batez ere, zerbitzuak eskaintzea eta argitaratzeko laguntzak eskatzea. Beste autonomia erkidegoekin eta estatuko instituzioekin egiten den hartu-emana ere aipagarria da; izan ere, batzuekin eta besteekin izandako harremanak interesgarriak eta ugariak dira.

Hori guztia gorabehera, Nafarroari buruzko informazioaren bila hurbildutako jendeari ere arreta eskaini zaio. Azokan parte-hartzeari buruzko balantze orokorra ona da, batez ere, Nafarroako Gobernuak Espainiako sektore publikoko argitaletxeetan duen irudi onari eutsi zaiolako.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko urrian

Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higuera

Galdera, eremu mistoari buruzko azterlan soziolinguistikoa Legebiltzarre- ra igorri ez izanaren arrazoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du eremu mistoari buruzko azterlan soziolinguistikoa Legebiltzarre-
ra igorri ez izanaren arrazoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko irailaren 8ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du 2006ko Iruñerriko azterlan soziolinguistikoari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna: inkesten datuak aztertu ondoren eta azterlanaren ondorioei buruzko behin betiko txostena bukatuta, aipatu azterla-

na gaurko datarekin bidali da Nafarroako Parlamentura.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urriaren 3an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko plantillari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko plantillari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko irailaren 8ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 17an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko plantillaren gaineko zenbait gairi buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. 2006ko ekainaren 30ean, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko eta haren erakunde autonomoetako eta menpeko entitate publikoetako plantilletan, aldi baterako zenbat lan-kontratu dago? Zer antzinatasuna dute? Mailen arabera zehaztu.

Ondoko tauletan adierazita daude Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko eta haren menpeko erakunde autonomoetako plantilletan, 2006ko ekainaren 30ean, dauden aldi baterako lan-kontratuak, ondokoak barne: zeregin-pilaketa-gatiko lan kontratuak, obra edo zerbitzuko lan-kontratuak, lanpostu hutsa betetzeko edo ordezteko bitarteko lan-kontratuak, praktikaldiko lan-kontratuak, egoiliarren prestakuntzarako lan-kontratuak eta erlijio irakasleen lan-kontratuak. Bigarren taulan kontratuen hasierako data zehazten da, Hezkuntza Departamentuko kontratuetan izan ezik, informazio hori ez baitago eskura euskarri informatikoetan.

LAN-KONTRATUAK GUZTIRA, MAILA ETA ARLOAREN ARABERA:

MAILA	ADMINISTRAZIO ERROA	OSASUNBIDEA-NOZ	NGOI	HEZKUNTZA	GUZTIRA
A	4	190	0	54	248
B	22	0	4	157	183
C	1	0	10	3	14
D	14	0	4	37	55
E	9	0	1	11	21
LHko monitoreak)	0	0	0	1	1
Guztira	50	190	19	263	522

ARLOKA, HASIERAKO DATA ZEHAZTUTA:**ADMINISTRAZIO ERROA**

TALDEA	DEPARTAMENTU EDO ERAKUNDE AUTONOMOA	HASIERAKO DATA
A	Nafarroako Administrazio Publikoaren Inst.	2005/01/24
A	Nafarroako Administrazio Publikoaren Inst.	2005/01/24
A	Nafarroako Administrazio Publikoaren Inst.	2005/01/24
A	Nafarroako Administrazio Publikoaren Inst.	2005/01/24
	A mailako aldi baterako lan-kontratuak, guztira:	4
B	Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua	2005/04/29
B	Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua	2005/04/29
B	Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua	2005/10/05
B	Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua	2006/03/02
B	Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua	2006/04/10
B	Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua	2006/06/01
B	Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua	2006/06/08
B	Nafarroako Zerga Ogasuna	2006/02/01
B	Nafarroako Zerga Ogasuna	2006/02/01
B	Nafarroako Zerga Ogasuna	2006/02/01
B	Nafarroako Zerga Ogasuna	2006/04/18
B	Nafarroako Zerga Ogasuna	2006/04/18
B	Nafarroako Zerga Ogasuna	2006/04/18
B	Nafarroako Zerga Ogasuna	2006/04/18
B	Nafarroako Zerga Ogasuna	2006/04/18
B	Nafarroako Zerga Ogasuna	2006/04/18
B	Nafarroako Zerga Ogasuna	2006/04/18
B	Nafarroako Zerga Ogasuna	2006/04/18
B	Nafarroako Zerga Ogasuna	2006/04/18
B	Nafarroako Zerga Ogasuna	2006/04/18
B	Nafarroako Zerga Ogasuna	2006/04/18
B	Nafarroako Zerga Ogasuna	2006/04/18
B	Nafarroako Zerga Ogasuna	2006/04/18
B	Nafarroako Enplegu Zerbitzua	2006/01/31
B	Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	2006/05/17
	B mailako aldi baterako lan-kontratuak, guztira:	22
C	Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	2006/05/02
	C mailako aldi baterako lan-kontratuak, guztira:	1
D	Toki administrazioko Departamentua	2006/04/03
D	Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua	2006/04/07
D	Ekonomia eta Ogasun Departamentua	2006/05/02
D	Nafarroako Zerga Ogasuna	2006/04/03
D	Nafarroako Zerga Ogasuna	2006/04/24
D	Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua	2006/03/22
D	Nafarroako Enplegu Zerbitzua	2004/12/01
D	Nafarroako Enplegu Zerbitzua	2005/06/13
D	Nafarroako Enplegu Zerbitzua	2005/11/25
D	Nafarroako Enplegu Zerbitzua	2006/06/19
D	Nafarroako Enplegu Zerbitzua	2006/06/19
D	Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	2006/04/03
D	Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua	2006/05/02
D	Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua	2006/05/03
	D mailako aldi baterako lan-kontratuak, guztira:	14

ADMINISTRAZIO ERROA

TALDEA	DEPARTAMENTSU EDO ERAKUNDE AUTONOMOA	HASIERAKO DATA
E	Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua	2006/04/07
E	Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua	2006/04/07
E	Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua	2006/04/07
E	Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua	2006/04/07
E	Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	1994/07/19
E	Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	1994/10/01
E	Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	1996/01/01
E	Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	1996/05/15
E	Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	2001/08/20
	E mailako aldi baterako lan-kontratuak, guztira:	9

ADMINISTRAZIO ERROA, GUZTIRA: 50**OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUA**

TALDEA	HASIERAKO DATA	KOPURUA
A	1992/04/23	1
A	2001/07/17	3
A	2001/07/18	1
A	2001/07/19	1
A	2001/07/20	1
A	2002/06/28	7
A	2003/06/16	3
A	2003/06/19	1
A	2003/06/20	9
A	2004/06/01	3
A	2004/06/03	48
A	2004/06/14	1
A	2004/07/17	1
A	2005/05/25	6
A	2005/05/27	48
A	2006/05/24	3
A	2006/05/26	53
	GUZTIRA	190

NAFARROAKO GIZARTE ONGIZATEAREN INSTITUTUA

TALDEA	ERAKUNDE AUTONOMOA	HASIERAKO DATA
B	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	2004/05/01
B	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	2004/05/01
B	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	2004/09/01
B	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	2004/09/01
	B mailako aldi baterako lan-kontratuak, guztira:	4
C	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	2005/08/16
C	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	2005/08/22
C	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	2005/08/16
C	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	2005/08/22
C	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	2005/08/16
C	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	2006/01/30
C	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	2005/08/16
C	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	2005/08/16
C	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	2005/08/22
C	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	2004/02/01
	C mailako aldi baterako lan-kontratuak, guztira:	10
D	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	2005/11/22
D	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	2005/02/28
D	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	2006/04/01
D	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	2006/04/01
	D mailako aldi baterako lan-kontratuak, guztira:	4
E	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	2006/05/01
	E mailako aldi baterako lan-kontratuak, guztira:	1

**NAFARROAKO GIZARTE ONGIZATEAREN INSTITUTUAREN
LAN-KONTRATUAK, GUZTIRA****19****HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA**

TALDEA	DEPARTAMENTUA	KOPURUA
A	HEZKUNTZA	54
B	HEZKUNTZA	157
C	HEZKUNTZA	3
D	HEZKUNTZA	37
E	HEZKUNTZA	11
LHko monitorea	HEZKUNTZA	1

2 – Zenbat kontraturen amaiera eta/edo kalera-tze izan dira mailen edo taldeen arabera? Eta horiek, 2003ko urtarrilaren 1etik 2005ko ekainaren 30era, zer kontratu motarekin ordezkatu dira?

Ondoko taulan zehazten da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan eta haren erakunde autonomoetan, 2003ko urtarrilaren 1etik 2006ko

ekainaren 30era, amaiera eman zaien aldi baterako lan-kontratuen kopurua, aurreko galderari egindako erantzunean adierazitako aldi baterako lan-kontratu mota guztiak barne. Salbuespen bakarra administrazio erroari dagokion datua da; izan ere, informazio hori ez dago eskuragarri euskarri informatikoan 2003ko urtarrilaren 1etik, baizik eta 2004ko urtarrilaren 1etik 2006ko ekainaren 30era.

MAILA	ADMINISTRAZIO ERROA	OSASUNBIDEA-NOZ	NGOI	HEZKUNTZA	GUZTIRA
A	6	279	3	189	477
B	125		23	547	695
C	7		48	19	74
D	73		84	382	539
E	11		44	76	131
LHko monitoreak				35	35
Guztira:	222	279	202	1248	1951

2005eko ekainaren 30era arte egindako ordezkapenei dagozkien lan-kontratu motei buruz, esan behar da aldi baterako lan-kontratuak iraungitzen direla lan-kontratu mota bakoitzari legez dagozkion arrazoiengatik (epea amaitzeagatik, ordezkaturako langilea lanpostura itzultzeagatik, lanpostua erregelamenduz bete delako, obra edo zerbitzua bukatu delako, etab.); beraz, interesdunak kontratuari uko egiten ez badio edo lanpostua aldi baterako betetzeko beste arrazoi desberdin bat ematen ez bada, ez dago aurreikusita iraungi den aldi baterako lan-kontratu mota bereko beste lan-kontratu baten bidez ordezkatzeari.

3.- 2003ko urtarrilaren 1ean, 2004ko urtarrilaren 1ean, 2005eko urtarrilaren 1ean eta 2006ko

urtarrilaren 1ean, zenbat administrazio-kontratu zeuden? Mailak eta/edo kategoriak zehaztu. 2006ko ekainaren 3an, zenbat eta zer ezaugarrietako administrazio-kontratu daude? Azken kasuan, ukitutako departamentu edo erakundeak zehaztu.

Ondoko tauletan, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari eta haren erakunde autonomoetako aldi baterako administrazio-kontratuen kopurua zehazten da, mailaren arabera, eta data hauetan: 2003ko urtarrilaren 1ean (administrazio erroan izan ezik, informazioa ez baitago eskuragarri euskarri informatikoan), 2004ko urtarrilaren 1ean, 2005eko urtarrilaren 1ean eta 2006ko urtarrilaren 1ean.

2003ko urtarrilaren 1ean:

MAILA	ADMINISTRAZIO ERROA	OSASUNBIDEA -NOZ	NGOI	HEZKUNTZA	GUZTIRA
A	*	898	2	559	1459
B	*	1347	25	1115	2487
C	*	293	24	35	352
D	*	1118	88	184	1390
E	*	507	109	142	758
Espezialistak	*			26	26
Guztira:	*	4163	248	2061	6472

2004ko urtarrilaren 1ean:

MAILA	ADMINISTRAZIO ERROA	OSASUNBIDEA- NOZ	NGOI	HEZKUNTZA	GUZTIRA
A	81	650	2	641	1374
B	88	1310	29	1110	2537
C	78	319	33	4	434
D	195	1258	108	152	1713
E	44	565	122	130	861
Espezialistak				33	33
Guztira	486	4102	294	2070	6952

2005ko urtarrilaren 1ean:

MAILA	ADMINISTRAZIO ERROA	OSASUNBIDEA- NOZ	NGOI	HEZKUNTZA	GUZTIRA
A	127	540	4	601	1272
B	117	1338	33	1259	2747
C	101	326	33	5	465
D	241	1462	150	159	2012
E	50	576	149	131	906
Espezialistak				35	35
Guztira	636	4242	369	2190	7437

2006ko urtarrilaren 1ean:

MAILA	ADMINISTRAZIO ERROA	OSASUNBIDEA- NOZ	NGOI	HEZKUNTZA	GUZTIRA
A	109	564	5	675	1353
B	125	1365	38	1020	2548
C	119	344	33	5	501
D	247	1257	174	192	1870
E	55	608	152	118	933
Espezialistak				26	26
Guztira	655	4138	402	2036	7231

Ondoko tauletan, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan, 2006ko ekainaren 3an, dauden aldi baterako administrazio-kontratuen kopurua, mailaren arabera eta departamentu edo erakunde autonomoaren arabera sailkatuta:

MAILA	ADMINISTRAZIO ERROA	OSASUNBIDEA-NOZ	NGOI	HEZKUNTZA	GUZTIRA
A	111	650	5	739	1505
B	138	1483	31	1116	2768
C	123	376	41	6	546
D	213	1364	138	187	1902
E	58	621	144	129	952
Espezialistak				10	10
Guztira	643	4494	359	2187	7683

SAILKATUTA:

Departamentu edo erakunde autonomoa	Guztira	Maila	Guztira
Toki Administrazioko Departamentua	29	A	6
		B	7
		C	4
		D	7
		E	5
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua	78	A	24
		B	25
		C	7
		D	18
		E	4
Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua	8	A	1
		B	2
		D	5
Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua	100	A	7
		B	12
		C	52
		D	14
		E	15
Ekonomia eta Ogasun Departamentua	45	A	10
		B	19
		C	1
		D	11
		E	4
Industria eta Teknologia, Merkataritza, eta Lan Departamentua	17	A	6
		B	4
		D	7
Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua	72	A	21
		B	8
		C	29
		D	9
		E	5

Departamentu edo erakunde autonomoa	Guztira	Maila	Guztira
Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua	41	A	11
		B	8
		C	8
		D	12
		E	2
Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	116	A	12
		B	6
		C	22
		D	71
		E	5
Osasun Departamentua	13	A	4
		D	5
		E	4
Nafarroako Mahastizaintza eta Enologi Zentroa	2	D	2
Nafarroako Zerga Ogasuna	59	A	2
		B	37
		D	20
Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua	14	A	2
		B	4
		D	6
		E	2
Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua	22	B	2
		C	1
		D	9
		E	10
Nafarroako Lan Osasunaren Institutua	13	A	5
		B	3
		D	4
		E	1
Nafarroako Enplegu Zerbitzua	14	B	1
		D	12
		E	1
Osasunbidea–Nafarroako Osasun Zerbitzua	4494	A	650
		B	1483
		C	376
		D	1364
		E	621
Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	359	A	5
		B	31
		C	41
		D	138
		E	144
Hezkuntza Departamentua	2187	A	739
		B	1116
		C	6
		D	187
		E	129
		Espezialistak	10

4.- Nafarroako Gobernuko Departamentuetan eta Nafarroako administrazio sektore publikoko entitateetan egiten diren kontratazioetan, Nork ezartzen ditu edo nola ezartzen dira kontratazioari eta kontratu motei buruzko irizpideak?

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta haren erakunde autonomoek egin ditzaketen aldi baterako lan-kontratu mota desberdinak zehaztuta daude, arrazoi eta behar desberdinen arabera, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langilearen Estatutuaren testu bateratuan –abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zena–; testu horrek ahalmena ematen die Nafarroako administrazio publikoari administrazio- eta lan-kontratuak egin ditzaten.

Administrazio-kontratuak egiteko araudia urtarilaren 7ko 1/2002 Foru Dekretuan garatuta dago; haren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan eta haren erakunde autonomoetan langileak administrazio araubidean kontratatuzko arauak eman ziren.

Halaber, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari dagokionez, arlo horri buruzko araudia ezarrita dago Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikiriko langileen berariazko araudia arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legean eta hura garatzen duen azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuan –Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzeari eta lanpostuen betetzea arautzen duena–.

Lan-kontratazioari dagokionez, eta estatuak arlo horretako araudia egiteko eskumen osoa duela kontuan harturik, aipatu behar da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta haren erakunde autonomoek egin ditzaketen lan-kontratu motak direla Langileen Estatutuan –martxoaren 24ko 1/1995 Errege Lege-Dekretuaren bidez onetsita– eta estatutu hori garatzeko erregelamendu mailako araudian ezarrita daudenak.

Aipatutako arau-markoari jarraikiz, eta otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, esan behar da Lehendakariak, Justizia eta Barne kontseilariak onetsi behar dituela Nafarroako Foru Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan langileak aldi baterako kontratatuzko irizpide orokorrak; halaber, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak ahalmena du funtzio publikoaren arloan jarraibideak onesteko, betiere, kontseilariak emandako irizpideekin bat etorri. Halaber, Nafarroako Foru Komunitateari ematen zaion ahalmena erabiliz, aipatu behar da Nafarroako Gobernuak hainbat erabaki hartu dituela aldi baterako kontratazioaren arloan irizpideak

finkatzeko eta langileen arloan gastua kontrolatzeko eta jarraituzko jarraibideak ezartzeko.

5.- Zergatik ez dira lanpostuak betetzeko deialdiak, horri buruz hartutako erabakiak eta arrazoiak azalduta, legeak ezarritako epeetan egiten?

Lan eskaintza publikoetan lanpostuak sartzeari eta horiek betetzeko deialdien onespena sindikatu-ekin adostutako irizpideei jarraikiz egiten dira; irizpide horiek Nafarroako administrazio publikoetako langileen lan baldintzei buruzko itunetan adosten dira.

2006-2007 eperako sinatu den itunean, zehazki, aurreikusita dago (aurreko itunean bezala) lan eskaintza publikoan sartzeari, oro har, aldi baterako lan kontratudunekin betetzen ari diren lanpostu hutsak eta behin betikoz bete daitezkeen egungo egiturazko lanpostu iraunkorrak.

Hori dela-eta, onetsiko den lan eskaintza publikoak lanpostu kopuru handia izanen du, eta, hala-beharrez zaila izanen den eskaintzaren garapena, administrazio publikoetan sartzeari dagozkion lege eta erregelamenduari jarraikiz egin beharko da. Hortaz, ez gatoz bat galderan egiten den baieztapenarekin, hau da, lanpostuak betetzeko deialdiak ez direla legeak ezarritako epeetan egiten esatearekin.

6.- Lehendakariak eta/edo Funtzio Publikoak lanpostu hutsak betetzeko eta behar diren kontratazioak egituratzeko, lehenesteko eta egiteko, ba al dute aldez aurretik ezarritako arau, irizpide edo zirkuiturik?

Uste dugu galdera Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari eta haren erakunde autonomoetako plantilla organikoan dauden lanpostu hutsak aldi baterako betetzeari buruz dela; beraz, esan behar dugu aldi baterako kontratuak egiteko proposamenak eskumena duten organoek baloratzen dituztela, indarrean dagoen araudiari jarraikiz eta laugarren galderari egindako erantzunean aipatutako irizpide eta jarraibideak aintzat harturik.

7.- 2003, 2004, 2005 eta 2006 urteetako plantilletarako, zenbat leku hutsen eskaerak egin dituzte Nafarroako Gobernuko departamentuek? Eskae-rak onartu ez badira, eskatutako lanpostu hutsak ezesteko eta mugatzeko erabakia nork hartu du? Nola? Zergatik?

Uste dugu galdera plantilla organikoan lanpostu hutsak sortzeko eskaerei buruz dela; beraz, aipatu behar da plantilla aldatzeko eskaerak Nafarroako Gobernuko departamentu eta erakunde autonomoen bidez egiten direla, beharizan askotarikoei erantzunez eta bide eta prozedura desberdinak erabiliz; era berean, kasu zehatz bakoitzaren

baldintzei dagokien araua tramitatzeko motibazioa eta balorazioa askotarikoak dira. Hori dela-eta, ezin dugu eman eskatutako datua, ez zehaztuta, ezta orokorrean ere.

8. – Aztertu al dira estatuko laneko araudi berria aplikatzeak 2 urte baino gehiagoko aldi baterako kontratuetan izan ditzakeen ondorioak? Zer neurri hartzeko asmoa dago?

Enplegua eta hazkundera hobetzeko ekainaren 9ko 5/2006 Errege Lege Dekretuaren bidez onetsitako lan erreforma Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan –beste administrazio publikoetan bezala– aplikatzen da Langileen Estatutuetako hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz eta 5/2006 Errege Lege Dekretuan idatzita dagoenaren arabera. Aipatu legeak agintzen du, jakina den bezala, administrazio publikoen kasuan, funtzio publikora sartzeko konstituzioan ezarritako printzipioei jarraitzea; Horren ondorioz, bi urte baino gehiagoko iraupena duten lan-kontratuak ez dira zuzenean behin betiko lan-kontratuekin orde-

katzen; aldiz, lanpostu horiek sortzen dira behin betiko betetzeko, eta aipatutako lan-kontratuak hutsik gelditutako lanpostuak aldi baterako betetzeko lan-kontratu bihurtzen dira.

Zentzu horretan, aipatu behar da 2004-2005 eta 2006-2007 epeetarako lan baldintzei buruz sinatutako akordioak direla-eta, eta dagoeneko esan dugunez, finkagarri diren egiturazko kontratazioei dagozkien lanpostuak lan eskaintza publikoan sartzeko eta plantilla organikoan sortzeko konpromisoa badagoela; Horren ondorioz, Nafarroako Foru Komunitatean dauden aldi baterako lan-kontratuak direla-eta, ez dago neurri espezifiko edo gehigarriak hartzeko beharrik edo aurreikuspenik.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urriaren 11n

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, Itoizko urtegiko presa dela-eta, larrialdietarako eta ebakuaziorako balizko planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du Itoizko urtegiko presa dela-eta, larrialdietarako eta ebakuaziorako balizko planari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko irailaren 8ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 17an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeari atxikitako Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du Itoizko urtegiko presa dela-eta larrialdietarako eta ebakuaziorako balizko planari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Parlamentuko 20. bilkura egunkariaren agertzen denez –gai honi dagokion zatia erantsi dugu–, 2004ko apirilaren 22ko Osoko Bilkuran,

kontseilari honek orain egindakoa bezalako galdera bati erantzun zion. Hona orduan egindako erantzuna hitzez hitz.

“Eskerrik asko, lehendakari jauna. Jaun-andere parlamentariak. Errazti andrea, hasiko naiz zuri zinez eskerrak emanez galdera hori egiteagatik, Nafarroako Gobernuarentzat garrantzi handiko gaia baita herritarren segurtasuna bermatzea bizitza eta osotasun fisikoa arriskuan jar ditzaketen hondamendi edo istripu latzen aurka babestuz; gai horrek, bistan denez, gero eta gehiago kezkatzen ditu herritarrak, eta horregatik, hain zuzen ere, eskerrak eman nahi dizkizut berriro ere galdera egiteagatik; izan ere, horrek aukera ematen dit herritarrei eta legebiltzarrari lasaitasun mezua helarazteko, eta esanen nuke administrazio publikoak, are gehiago, administrazio publiko guztiak, Nafarroako Gobernuaren barne, lanean ari garela arriskuak galarazteko behar diren neurriak hartzeko, oinarriarik gabeko alarmak saihesteko, eta funtsean, balizko ondorioak gutxitzeko. Laburbilduz, herritarren bizitza eta ondareak ahalik eta hobeki en babesteko lanean ari gara.

Itoizko urtegiari buruzko lasaitasun mezu hori zabaltzeak bereziki gogobetetzen nau, urtegiak Nafarroako herritarrentzat duen garrantzi nabariarengatik, eta beraz, ez naiz luzatuko garrantzi hori azaltzen. Parlamentariaren galderan ukitutako udalerrien segurtasunarekin, eta dudarik gabe, baita udalerrri horietako bizilagunen segurtasunarekin ere lotutako gaiak aipatzean, urtegi horri buruz ari da; beraz, hori galdetzeak adierazten du gaiak kezkatzen duela bere parlamentu-taldea, Nafarroako Gobernuak kezkatzen duen bezala, eta seguru asko, legebiltzarreko beste parlamentutalde guztien kezka ere sortzen du. Parlamentari horrek ziur izan behar du segurtasunaren gaia, ezin bestela izan, etengabe zaindu dela bai presa egitean baita abian jartzean ere.

Gaiari helduz, saiatuko naiz azaltzen nola egin den Itoizko urtegiari dagokion larrialdietarako plangintza, eta aurreratu behar dut Nafarroako beste urtegietan egin den bezala aritu garela Itoitzen ere.

Galderan zuzen aipatu denez, presak urratzeko edo matxuratzeko arriskuei aurre egiteko larrialdietarako plangintza oinarritzen da presetarako larrialdi planak egitean eta ezartzean, eta hori egitea eta planak gaurkotzea eta mantentzea ere presen jabeei dagokie. Horretaz gain, larrialdietarako plangintza oinarritzen da presa urratu edo matxuratzegatik gerta litekeen uholdearen aurka pertsonak eta ondasunak babesteko jarduketan aurreikuspenean, autonomia erkidegoen babes zibileko planean –gure kasuan Nafarroakoan– eta uholdeak uki dezakeen eremuko udalen jarduketa planetan agertu behar dena.

Nafarroako kasuan, otsailaren 25eko 45/2002 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Foru Komunitateko Uholde Arriskurako Larrialdi Plan Bereziaren 5. idatz-zatian zehazten dira larrialdi plana izan behar duten presak; halaber, aurreikusten du uholde arriskurako larrialdi plan berezian sartuko direla presa bakoitzaren larrialdi planak, aipatu bezala, presaren titularrek egin behar dutena –Itoitzen kasuan titularra Ebroko Konfederazio Hidrografikoa da–. Arlo honetan, presa guztietan herritarrak babesteko plangintza berdina egiteko lanean ari gara.

Halatan, 2002ko otsailaren 5ean egindako bileran, Nafarroako babes zibileko batzordeak Allotz, Eugi, Irabia, Itoitz eta Esako presetarako larrialdi planen proiektuak –presen titularrak eginak– aztertu zituen eta aldeko txostena eman zuen. Plan horiek Babes zibileko batzorde nazionalaren aurrean aurkeztu ziren, eta batzordeak plan guztiak homologatzea erabaki zuen.

Itoizko presarako eta presa laguntzailerako larrialdi planari dagokionez, Ingurumen Ministerio-ko Obra Hidraulikoen eta Uraren Kalitatearen Zuzendaritza Nagusiak, 2002ko martxoaren 26ko ebazpenaren bidez, behin betiko onetsi zuen; ondoren, planaren ezarpena hasi zen eta 2003ko abenduan bukatu zen.

Aipatu planaren hedapenari dagokionez, galderan aipatzen denez, esan behar dut Barne zuzendari nagusiak, 2003ko urtarrilaren 10ean, bilera egin zuela Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin eta Agoizko, Longidako, Artzibarko, Orotz-Beteluko, Urraulbeitiko, Ledeaiko eta Zangozako udalekin komunikazio planaren garapena eta ezarpena burutzeko egin behar ziren jarduketan berri emateko.

Geroztik ere, lan bilerak egin dira Agoizko udalarekin jarduketa plan bat egiten laguntzeko; larrialdi planak ukitutako beste udal batzuekin ere bilerak egin dira ebakuatzeko bideak zehazteko eta balizko larrialdi kasuetarako bilguneak ezartzeko; lan hori ia bukatuta dago Agoitzen, Ekain, Aosen, Murelun, Artaxon, Arripodasen, Irunberrin, Ledean eta Zangozan.

Laburbilduz, Itoizko presarako larrialdi plana egina eta homologatua dago, eskumena duten organoek onetsia eta ezarria.

Komunikazio planaren bukaerako fasea baino ez da falta; bestalde, komunikazio planak iraun behar du presa abian dagoen bitartean; plan hori presaren titularraren eskumenekoa da, Nafarroako Gobernuak babes zibilerako batzorde nazionallean hartutako erabakiak ezartzen laguntzen duen arren. Esan behar dut, galderan ere aipatu delako, balizko ebakuazioa egiteko ez direla beharrezkoak obra berriak edo berariazko egokitzapenak errepideen sarean edo azpiegituretan; izan ere, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak behar zen guztia egin du: azpiegiturek, larrialdietarako ekipamenduak, seinale akustikoen sistemak, larrialdietako aretoa, eta abar; beraz, larrialdi plana ezartzeko prozesuan gauzatu ziren.

Komunikazioari dagokionez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak, nire departamentuarekin eta Herri Lan eta Garraio Departamentuarekin elkarlanean, dibulgaziorako informazio bat egin du –jarduteko arauak dituen triptikoa, eranskailuak, horma-irudiak, gidaliburuak, ikastetxetarako fitxak–; informazio hori ia osoa eskura dago eta babes zibileko organo eskudunek zabalduko dute, une egokienean, beste larrialdi egoera ugariri aurre egiteko zenbait gomendio orokorrekin batera (askotariko euskarritan eginak). Materialak udalerrri bakoitzari buruzko informazio espezifikoa du, eta

kasuan kasuko ebakutzeko bideak eta bilguneak ezarrita daude.

Bestalde, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak eta ukitutako udalek aurreikusita dute 2004-2005 ikasturtean eskolako umeei zuzendutako informazio jarduerak hastea; horrekin batera, biztanle guztiei zuzendutako beste jarduera batzuk ere egingen dira; hori guztia etorkizunean egingen diren aldizkako gogorazteak ahaztu gabe, besteak beste, udalen larrialdi planen arabera simulazio orokor eta espezifikoko eta ikastetxeen ebakuziorako eta larrialdietarako planak.

Azken batean, zalantzarik ez izan, etorkizuneari gure komunitatearen garapena bermatuko duen azpiegitura bat izanik, eta Itoizko urtegia-Nafarroako ubidea hala da, legeak ezarritako guztia zehatz-mehatz betetzen ari gara; are gehiago, estatu osoan eredugarri den plana da, metodologia guztiz berritzaileak sartzen dituelako, esaterako komunikazio plana, Espainiako beste presetako planetan inoiz egin ez dena.

Era berean, argi izan behar da presa batek berez ez duela uholde arriskurik sortzen; aitzitik,

azpiegitura horrek ibaien emaria neurtzea ahalbidetzen du, elurra urtzen denean edo euri gehiegi egin duenean; beraz, presak kontrolik gabeko uholdeak galarazteko eta uholdeei aurre egiteko tresna dira.

Laburbilduz, hitzaldiaren hasieran aipatutako lasaitasun eta segurtasun mezuak errepikatu nahi ditut eta berriz eskerrak eman nahi dizkizut galdera egiteagatik, nire ustez, zalantzarik gabe, garrantzitsua baita herritarrei lasaitasuna helarazteko. Eskerrik asko.”

Bestalde, eskatu bezala, Itoizko presarako larrialdi plana duen CD bat erantsi dugu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urriaren 11n

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

(Oharra: Aipatu CDa foru parlamentarien esku-ra dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulego nagusietan).

Galdera, Konstituzio Auzitegiaren epai bidez konstituziokotzat deklaratu den soldaten igoeraren ondorioz funtzionarioek jasotako dirua itzuli beharko ez dutela esaten duten txosten juridikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Konstituzio Auzitegiaren epai bidez konstituziokotzat deklaratu den soldaten igoeraren ondorioz funtzionarioek jasotako dirua itzuli beharko ez dutela esaten duten txosten juridikoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko uztailaren 6ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 17an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko zein diren Nafarroako Gobernuak eskura dituen txosten juridikoak Sanz lehendakariak adierazi ahal izateko funtzionarioek 1997ko lansarien igoer

ran jasotako dirua itzultzeko arriskurik ez dagoela. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Parlamentu-eginkizunak betetzeko Nafarroako Gobernuko lehendakariak eskura dituen informazioak, datuak, argitalpenak, dokumentuak, iritzia, iradokizunak eta abar, ez zaizkio inolako espediente administratiboari erantzen; izan ere, lehendakariak, lan politikoa egite aldera, aholku-emaileei eskatzen dien dokumentazioa da.

Hala eta guztiz ere, galdegileak gogoratuko duenez, aipatutako gaia joan den irailaren 12an aztertu zen, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean kontseilari honek egindako agerraldian; hortaz, egun horretan esandakoa ikus daiteke.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urriaren 11n

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Bidesariaren teleordainketa sistemak sustatzeko asmoari buruz, ibilgailuek ez dezaten AP-15eko bidesari-postuetan geratu behar.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Bidesariaren teleordainketa sistemak sustatzeko asmoari buruz, ibilgailuek ez dezaten AP-15eko bidesari-postuetan geratu behar.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko irailaren 8ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du ibilgailuek AP-15eko bidesari-postuetan geratu beharrik izan ez dezaten bidesarien teleordainketa sistemak sustatzeko asmoari buruz. Horren gainean, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak esan behar du Nafarroako Gobernuak bultzatzen ari dela Audenasa enpresa emakida-hartzaileak teleordainketa sistemak ezar ditzan, betiere ezar-

penak ez badu inolako kosturik Nafarroako zergadunentzat, baizik eta autopistaren erabiltzaileen-tzat.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko urriaren 6an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, ehiza-espezieak harrapatzeak eragindako zirkulazio istripuen kasuetarako erantzukizun sistema bat ezartzen duen Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko Foru Legearen 86. artikuluan oinarrituta izapidetu diren espedientei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du ehiza-espezieak harrapatzeak eragindako zirkulazio istripuen kasuetarako erantzukizun sistema bat ezartzen duen Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko Foru Legearen 86. artikuluan oinarrituta izapidetu diren espedientei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko irailaren 22ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera batzuk egin ditu ehiza-espezieek eragindako trafiko istripuen erantzukizunari buruz –Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko Foru Legearen 86. artikuluan ezarritakoa–, eta idatzizko erantzuna

eskatu du. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

– Zenbat espediente tramitatu dira aipatu artikuluan oinarrituta?

17/2005 Foru Legeak indarra hartu zuenetik, 49 espediente hasi dira. Une honetan 25 espediente tramitatzen ari dira.

– Zenbat espediente ebatzi dira?

24 espediente ebatzi dira.

– Zein da Nafarroako Gobernuak ordaindutako kalteordainen zenbatekoa?

Aitortu diren kalteordainei 35.694,36 euro dagozkie. Horietatik, dagoeneko, 34.441,65 euro ordaindu dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urriaren 9an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, euskarazko hezkuntza eskaintza publikoa bermatzeko beharrezkoa izanen litzatekeen aurrekontu-handitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du euskarazko hezkuntza eskaintza publikoa bermatzeko beharrezkoa izanen litzatekeen aurrekontu-handitzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko irailaren 29ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroa osoan euskararen eskaintza

publikoa bermatzeak izanen lukeen gutxi gorabeherako kostuari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza Departamentuak, dagoeneko, Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz, euskararen irakaskuntzarako eskaintza publikoa A ereduaren bidez bermatzen du Nafarroako Foru Komunitate osoan.

Hezkuntza Departamentuak ez du ohiturarik indarrean dagoen legediaren aurkako kasuei buruzko zenbatespen ekonomikorik egiteko.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urriaren 10ean

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Urtebete 43,95 euro	Navas de Tolosa, 1
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	31002 IRUÑA
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	